



Antxiñako fotografixia



Txantxilipiztegiko kontuak

Ezta hainbeste denpora be, baiña zela aldatu diran trafikua eta enparauak! **Madalena** edo **Txantxilipiztegi** auzoko argazki honetan kamioi bakarra ikusten dogu kamiñuan. Gaur egunian badakigu eten bariko fan-etorrixa egoten dala, egunez behintzat, inguru horreittan. Handik pasaiten zan trena be kendu zan 1967xan, eta harrezkero kamioi, autobus edota kotxez egin bihar izaten dira era guztietako karriuak gure baillara honetan.

Eta ezta bizilagunen kopuruak asko igo dauelako. Jakiña da Oñatiko demografiak eztauela ixa ikararik be egin azkenengo berrogei urtietan: hamar milla eta hamaika milla biztanlien artian planto egindda gagoz. Trafikua ugarikettia, neurri haundi batian, industriaren gehiketiak ekarri dau. Zenbat fabrika eta biltegi jaso diran aspalditxuan – hasi Ibarra eta Osin Urdireraino – Goribar, Garibai, Santxolopeztegi eta Zubillaga auzuetan. Sasue batian Ibarra-Kasablanka eta Zubillaga artian ez egozen baserrixak, soruak eta ortuak baiño. Orain, ostera, zailla da hiru edo lau kilometro horreittan okupau bariko tarterik topaittia.

Hemen agiri dan paraje honetan bertan, hogeita hamarren bat urtian, zihero aldatu da kamiñuaren alde bixetako itxuria. Ezkerraldian **Lana**, **Fagor Etxetresnak** eta **Fagor Industrial**a kooperatiba-fabrikak eta **Stadler** lantegixak bete dittue behetik goraiñoکو lur-saillak. Eskumako aldeko zirrindaran, berriz, **Magdalena** gasolindegixia jarri daue. Baserri gehixenak zutik dagoz; ezkerretik eskumara antxiñako hiru **Izurtegi**xak: **Goittikua**, **Erdikua** eta **Beittikua**, orain **Goittikua**, **Pardioskua** eta **Antuena** moduan ezaguketan ditugunak; eta goixenian **Miraflores**. Lehenengo hirurak barriztau egin dittue, baiña laugarrena hustu eta hondatu egin zan.

Fotografixia hau atara baiño larogei bat urte lehenago, 1872ko maiatzian, **burruka latza** gertatu ei zan leku honetantxe. Azken gerrate karlistiaren hasieria zan eta Karlos VII.aren aldekuak Mondraguetik ei etozen Zubillagan gora. Antueneko parera heldu ziranian, liberalak albuetatik frente egin osten arren, bestiok aurrera egitteko moduan ei ziran; baina **Urutiaga-garaikua** aldetik jaurtittako tiro batek **Frantzisko Ulibarri Beramendi** zauritu eben, karlisten buru zan jeneral bizkaitarra. **Urutiaga-azpikua** eta **Antuena** bittarteko kamiño-zati honetan jausi ei zan. **Miraflores** baserrira jaso euen Ulibarri eta, toki oso segurua etzalako-edo, handik **Kakotegira**. Nahiz eta Aretxabaletako mediku liberal batek atendidu, ez eben bizirik urten. Karlistak urtebete baiño gehixago itxoin bihar izan euen Oñatiko herrixaz guztiz jabeketako, luzarorako izan ezpazan be.

J. E.

Udal Argazki Fondotik eskuratu dogu fotografixa hau.